



# Euskara gure lan tresna

Euskara gure hizkuntza eta eguneroko erronka.

365 EGUNEZ  
EUSKARAZ

**FAGOR**

FAGOR ARRASATE Koop. E.

[www.fagorarrasate.com](http://www.fagorarrasate.com)



# «Euskararen plan estrategiko errealista, bideragarri eta eraginkorra martxan jartzera goaz Nafarroan»

MIKEL ARREGI

## EUSKARABIDEKO ZUZENDARIA

Mikel Arregi Euskarabidea Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailea da iazko udatik. Iruñean jaio zen, duela 25 urte Garesen bizi da eta euskarari eta herrigintzari lotutako gaietan egin du lan urte luzez. Hizkuntza politikako teknikari gisa ere urte askoan aritu da, eta Oinarriak plataformaren sustatzaileetako bat ere izan zen. San Fermin Ikastolako lehendakari ohia ere bada. Nafarroako Gobernuak esku artean daukan Plan Estrategikoaz eta euskaraz mintzatu gara berarekin.

Beñat HACH EMBAREK IRIZAR | IRUÑEA

**Hizkuntzari dagokionez, hementzi puntuko akordioa sinatu zuten nafar Gobernuak osatzen duten lau taldeek; ziur hamai-ka kontu gertatuko zirela.**

Hizkuntza politikari buruz Nafarroako Gobernurako programa-akordioan agertzen diren 19 puntuak arretaz irakurtzea nahikoa da ikusteko lau alderdiek konpromiso sakonak adostu zituztela. Adostasuna bildu ez zuen gai bakarra euskararen ofizialtasuna Nafarroa osoan onetsiko lukeen Foru Lege berria egitea izan zen. Alderdiek adosteko gaien zerrendan kokatu zuten puntu hau. Gai potoloa noski, oso konplikatu delako hizkuntza politika egoki bat garatzea zonifikazioaren marraz daudenean. Gaiari heltzeko eguna iritsiko da. Dena den, 2015eko uztailan denek onartu zituzten gainerako 19 puntuek euskararen aldeko hizkuntza

politika garatzeko bermea ematen diote Gobernuari.

Puntu horien edukia aztertuz gero, aise ikus daiteke aurrerapauso nabarmenak emateko aukera dagoela: herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dituen arauzko esparru egokia garatzea; Gobernuaren irudian eta agerraldietan euskarari tratu egokia ematea, komunikazio estrategia berria garatzea euskarari prestigioa emateko; Euskararen Nafar Kontseilua berritzea, gizartearen parte-hartze handiagoa lortzeko; euskararen egoeraren diagnostiko oso eta eguneratua oinarritutako Euskararen Plan Estrategiko errealista, bideragarri eta eraginkorra martxan jartzea, Gobernuaren hizkuntza-politikaren oinarria finkatzeko.

Bestalde, euskararen ezagutza eta erabilera bermatzeko estrategikoak diren sektoreei baliabideak eta elkarlanerako aukerak eman behar zaizkie: D eredu



Itzi GORRIBERRI | ARGAZKI PRESS



«Adostasuna bildu ez zuen gai bakarra euskararen ofizialtasuna Nafarroa osoan onetsiko lukeen Foru Lege berria egitea izan zen».

sustatu; helduei euskara ikaste-ko eskaintza publikoa bermatu; gizarte ekimeneko euskaltegiei baliabide eta finantziario egokia ziurtatu; euskarazko hedabideei ere baliabide ekonomikoak ziurtatu; toki entitateekin elkarlanean aritu; kulturean, aisialdian eta arlo sozioekonomikoan politika egokiak garatu...

**Plan Estrategikoaren helburuak 2019rako beteko direla aurreikusten duzue?**

Lehen esan dudan moduan, programa-akordioko konpromisoa zehatza da: euskararen plan estrategiko errealista, bideragarri eta eraginkor bat martxan jartzea. Eta filosofia horrekin ari

gara lanean; helburu izan dugu euskalgintzako eragileekin eta gizartean eraginkorrak diren eragileekin lantzea prozesua. Plan estrategikoan bi dinamika uztartzen dira: batetik, planak errealista eta bideragarria izan behar du, baina, bestetik, ez dugu ahaztu behar ambizioa ere beharrezkoa dela orain arteko dinamika aldatzeko. Dinamika horiek argi eta garbi ikusten dira Planean definitu ditugun sei ardatz estrategikoetan. Eta hau guztia martxan jarriko dugu 2017ko urtarriletik aurrera, helburuak 2019an betetzeko konpromisoarekin. Hori bai, ahaztu gabe 2019tik aurrera lanean gogotsu jarraitu beharko dugula.

“ Igorren gaur eta beti euskaraz bizi gura dogu ”

 **IGORRE**  
Danon herria  
Danon aukera



**KIDE**  
APAINDURA



Zerkabarren kalea (Cercas Bajas), 27.GASTEIZ · Tl. 945 14 41 95

# Inkesta, diagnostikoa. Plan estrategikoa, sendagaia

VI. Inkesta Soziolinguistikoa Nafarroan bildutako datuak egun batzuen buruan ezagutaraziko dituzte

B.H. | DONOSTIA

**E**uskal Herriko seigarren Inkesta Soziolinguistikoa egina dago jada, eta ezarzen diguten lurralde banaketaren arabera jakinarazi dituzte datuak. Lehenik Patxi Baztarrikak, EAEko Hizkuntza Politikarako sailburuordeak eman zituen pasa den urrian; ondoren, abenduko bigarren astean, Mikel Arregi Nafarroako Gobernuako Euskarabidea Institutuko zuzendari nagusiak jakinaraziko ditu; eta azkenik Mathieu Berge Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoko presidentek, 2017ko urtarrilean.

Hortik aitzin, azpimarratu behar da lehenengoz euskararen lurraldeetan hizkuntza politikaren ardura duten hiru instituzioek –Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoak eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak– elkarrekin egin eta finantzatu dutela inkesta hau.

Patxi Baztarrika oso baikor agertu zen agerraldian EAEko datuekin. 16 urtetik gorako biztanleen %33,9 euskalduna da; euskaldunen hazkunderik handiena gazteen artean ari da gertatzen: 16-24 urte bitarteko gazteen artean %71,4 dira euskaldunak; euskararen erabilera bera ere hazi omen da; azken 25 urteotan %7,9 hazi dela adierazi zuen sailburuordeak. Baztarrikaren esanetan, «hazkunde baten kronika da euskararena. Euskal gizarteak badu pozik eta harro egoteko motiborik»; aldi berean onartzen du, halere, «arriskutsua genukeela euskararena egina dagoela sinestea».

## MOTELEGI, KONTSEILUAREN IRITZIZ

Euskalgintzako beste sektore batzuek irakurketa baikorregia

dela deritzote. Kontseiluko Zigor Etxeburua iritzi horretakoa da, eta horrela laburbildu ditu inkestaren ezkutuko titularrak.

Alde batetik, euskalduntze erritmoa motelegia dela uste du. Azken hamar urteotako erritmoari eutsiz eta egungo baldintzetan, 174 urte beharko liriteke herritar guztiak euskalduntzeko.

Bestetik, hezkuntza sistemak erabateko euskalduntzea ez duela lortzen deritzo, eta ez duela eskaintza osoa euskaraz ziurtatzen.

Era berean, gune euskaldunetan, euskararen erabilera etengabe behera egiten ari dela nabarmentzen du Kontseiluak, eta gazte euskaldun prestatuak talka egiten ari direla kristalezko sabai bilakatu zaien gizarte heldu erdaldunarekin.


## NAFARROAKO PLAN ESTRATEGIKOA

2015-2019 legealdiko Nafarroako Gobernurako Programa Akordioak hizkuntza politika berria abiatu beharra nabarmendu du. Herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatu eta hizkuntza normalizazioan aitzina egiteko, hizkuntza politika zeharkakoa, progresiboa eta eraginkorra izan behar dela deliberatu dute; hizkuntza eskubideak bermatu eta euskarari zor zaion prestigioa itzultzea xede. Behar hauei erantzutera dator plan estrategikoa.

Lehenik Euskarabideak (Euskararen Nafar Institutua) diagnostikoa osatu zuen aditu eta gizarte eragileen laguntzaz, eta haiekin osatu lehen idatzaldia. Hastapeneko zirriborro hori herritarrekin kontrastatu zuten, eta parte-hartze prozesuaren ostean, behin betiko txostena osatu.

Planaren helburuak garbiak dira: Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikak politika publiko guztiei eragitea eta horiek Nafarroaren izaera elebidunari erantzutea. Nahi duen herritar orok, Nafarroa osoan, euskara ikasi ahal izatea ziurtatu nahi

dute; eta gizarte arlo orotan euskaraz egiteko aukerak handitzea dakar horrek. Euskarabideak kudeaketa sistema egokia izan nahi du, hizkuntza politika zeharkakoa eta eraginkorra, Gobernu departamentu guztiei eta nafar gizarte osoari eragin ahal izateko.



EAEko datuak urrian plazaratu ziren, eta hil honetan Nafarroakoak kaleratuko dira. GARA



(\*) kiliki-kiliki = cosquillas

## HIRU INSTITUZIOEN ARTEAN EGINA

**Euskararen lurraldeetan hizkuntza politikaren ardura duten instituzioek –Eusko Jaurlaritzak, Euskararen Nafar Institutuak eta Euskararen Erakunde Publikoak elkarrekin egin eta finantzatu dute inkesta hau lehen aldiz.**

3 de diciembre, Día Internacional del Euskera  
Abenduaren 3a, Euskararen Nazioarteko Eguna

Nafarroako Gobierno  
Gobernua de Navarra

**BIGISTAK** jai zoriontsuak  
KINKILADENDA  
OSAGARRIAK



Nueva dirección (Junto parada autobús) © 94 602 61 83  
General Castaños, 25. 48920 PORTUGALETE

**BORDA**  
ardoak



Foruen kalea 12, ZARAUTZ. T. 943134205

ESTANCO - TIMBRE

**Arriluzea**

Antonio Trueba, 7. BASAURI T. 94 449 41 10



**TXUTXI LORENZO · AZETAGAS, S.L.**

**GAS** *Mantenimientos*  
**CALEFACCIONES** **AZETAGAS**  
**INSTALADOR AUTORIZADO**

*Cambio de calderas y  
reforma de instalaciones*

azetagas@euskalnet.net  
(Apdo. correos 133) PORTUGALETE  
telf. 94 472 22 95 Móvil 689 70 31 41



**KAFE**  
**TXIMINTXE**

Especialidad en PINTXOS Y CAFÉ

Basauri Kalea, 10 - BASAURI - T. 94 440 25 53



# ENPRESAZ, EUSKARAZ ETA EKINTZAIETZAZ



Orona enpresaren Ideo berrikuntza gunean egindako irekiera ekitaldia. BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIAREN ELKARTEA

B.H. | DONOSTIA

**A**zaroaren 3an izan zen Hernanin euskaraz lan egiten duten enpresa eta profesionalen arteko topaketa. Bi urtean behin antolatzen du Enpresarean ekimena Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak; aurtengoa Enpresa Azoka honen hirugarren edizioa izan da, eta Orona enpresaren Ideo berrikuntza gunean egin zuten bilkura. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Hernaniko Udalak, Laboral Kutxak eta Oronak berak babestu dute.

130 pertsona inguru izan ziren jardunaldietan euren ilusioak, ibilbide profesionalak eta ekintzaitza zein finantziario ereduak partekatzen. Honek antolatzaileei etorkizuneko erronkei aurre egiteko eta ideiak partekatzeko foroa eskaintzen die, eta horrek, euren arabera, «euskaraz lan egiten duten enpresen eta profesionalen arteko sarea ehuntzeko konpromisoa berrestera» daramatza. Elkartearen iritziz euskara ongizatearen pieza garrantzitsua da.

Ekitaldiari hasiera emateko, «Ekintzaitza eta finantziario aukera berriak. Etorkizuneko erronkei aurre egiteko formula berriak» gaia aurkeztu zuten jardunaldiaren antolatzaile eta ba-

besleek: Rober Gutierrez (Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarte-ko zuzendaria), Markel Olano (Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusia) eta Luis Intxauspe (Hernaniko alkatea).

Gutierrezek adierazi zuen ekintzaileek ekintzaitza sistematikoki sustatuko den ingurune bat nahi dutela, eta ordezkatzen duen elkartearen nahia ingurune horretan euskararen presentzia ziurtatzea dela: «Euskara era naturalean erabiliko duten aberastasun sustatzaileak behar ditugu mundura begira eta beste hizkuntza batzuk ahoan izatera ohituta egongo direnak. Gure lurraldearen garapen osoa sustatzeko eta XXI. mendeko Euskal Herrian era naturale-



**Mikel IRIZAR**

Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaria

«Euskarak eta enpresa alorrek lotura estua izatea berebizikoa da, hezkuntzan egiten den inbertsioari gero lan esparruan segida emateko»



**Rober GUTIERREZ**

Bai Euskarari Ziurtagiria

«Euskara era naturalean erabiliko duten aberastasun sustatzaileak behar ditugu, mundura begira eta beste hizkuntza batzuk ahoan izatera ohituta egongo direnak»



**Iñigo ARANDIA**

Kaixomaitia

«Errentagarritasunaz hitz egiten denean ekonomikoaz hitz egiten da gehiegitan, eta ia inoiz ez da aintzat hartzen proiektuen errentagarritasun soziala»

an txertatzeko gai izango direnak».

#### ARIN-ARIN SARI BANAKETA

Jardunaldi honen zati esanguratsu bat Arin-Arin egitasmoa da, bertan zenbait enpresa edo elkarte beraien ideia eta proiektu sortzaileak aurkezten baitituzte. 2.000 euroko saria zegoen gordeta irabazlearentzat, eta hamahiru proiektu aurkeztu ziren, beste hainbeste enpresaren eskutik. Azkenean, saria Kaixomaitiarentzat izan zen, eta taldearen izenean hartu zuen Iñigo Arandiak.

Kaixomaitia 2007an sorturiko euskaldunon harremanetarako gunea da. Urteetan zehar aldatketak jasan ditu eta, denborak aurrera egin ahala, gero eta komunitate handiagoa biltzen joan da, 4.000 euskaldun harremanetan jartzera iritsi arte.

Arandiak hainbat azalpen eman zituen ondoren Enpresarean egitasmoaz eta suposatzen duenaz: «Euskal Herriak euskalgintza eta eredu sozial eraldatzaile gehiagoren beharra duela uste dut, eta administrazio publikoak oraindik ere baduela bietan egiteko bide luzea. Euskara ez baita estrategikoa Euskal Herriarentzat; ezinbestekoa da».

Hunkituta agertu zen Arandia jasotako sariagatik eta erreko- nozimenduagatik: «Askotan sari hauek balio dute bere balio ekonomikoarengatik baino (oso ongi etorria dena!), duten balio emozional eta animikoarengatik. Egindako lanaren aitortza-rengatik».

Azpmarratzekoa da Arandiak saria Banaiz Bagara elkartearekin partekatzea erabaki zuela: «Saria jaso, eseri eta berehala, Banaiz Bagara eta Petra Elser etorri zitzaizkidan burura. Elkarte eta Petra, gutxi bada ere, aurreko lan esperientziatik -Irrien Lagunak Kluba eta Bizipoza proiektuan- ezagutzen ni-

tuen, beste hainbat elkarte eta gizarte eragilerekin batera».

Banaiz Bagara elkarte 2009an sortu zen Urnietan, gure gizartean jatorri ezberdinetako pertsonen artean euskaraz bizitzeko aukera gehiago sortzeko. Arandiak elkartearen helburuak konpartitzen ditu, baina esperientzia pertsonalak eskaintzen dituen balio erantsia eta atxikimendua dauzka: «Oso berriki gertutik ezagutu dut ia familiakoa den Fatima emakume marokoarrak Donostian bizi duen lan eta bizitza egoera (zorionez asko hobetu zaiona). Ni neroni ere gaztetan migratzaile izan naiz, hasieran bertako hizkuntza ezagutzen ez nuen herrialde batean, ia sei urtez. Kasualitatez, Petraren jaioterrian; Alemanian. Migratzaile zuri, (hego) europar, gizonezkoa, lanpostua (ia) ziurtatua eta erresidentzia baimenak eskatzeko ilara motzak egin behar dituzten horietakoa. Pribilegiatua. Noski, ziurrenik, Banaiz Bagara elkarte-ko migratzaileekin alderatu ezin banaiz ere, nahiko erraz enpatizatu dezaket partetxo batean euren egoerarekin».

#### EKINTZAILTZA EREDUAK

Ondoren, ekintzailtza ereduez hausnartzeko, solasaldi batean elkartu ziren honako parte hartzaile hauek: Nagore Ardanza, Crecer+ Orkestrako arduraduna; BAC Mondragonetik, Mikel Orobengoa (ISEAko zuzendaria); Beñat Irasuegi, Talaios Kooperatibako zuzendaria; eta, azkenik, Paul Liceaga, Adegiko Elkarte Sektorialen zuzendaria. Pilar Kaltzadak dinamizatzaile lanak egin eta saioa gidatu zuen.

Talaios Kooperatibarena oso adibide esanguratsua da. Teknologia berrien bitartez gizarte eraldaketa bilatzen duen kooperatiba bat da, eta teknologia libreetan oinarritutako tresnen

garapena eta prestakuntza eskaintzen ditu. Hainbat lan eta proiektu garatu ditu Errenterian abiatutako esperientzia honek: Localbier (garagardo artisau eta ekoizleen bilatzailea), Aramendia gozogile ezagunen negozioaren online garapena, Kabia espazio sortzailea edota "Hitza"-ren web orriak.

Finantziarioari dagokionez, dirua lortzeko bidez aritu ziren hainbat profesional, tartean Juan Garibi, Fiareko zuzendaria. Euskal Herrian finantza etikoetan interesa zuten hainbat talde elkartu, eta 2003an Fiare Fundazioa eratu zuten, banka etiko baterako oinarriak ezarriko zituen herritar mugimendu aktiboa saretzeko. 2005ean Banca Popolare Etica erakundearen agente izateko kontratua sinatu zuten, eta finantza bitartekaritza jarduerari ekin.

Era berean, Eneko Knörrek, Silicon Valley-n bizi izan den ibilbide profesional handiko gasteiztarrak, berrikuntzaren eta finantziarioaren alorren inguruan hitz egin zuen. Knörrek Bilbotik teknologiaren Mekara egin zuen jauzi esku artean zeukan proiektua aurrera ateratzeko: Ludei joko aplikazioa.

Ekitaldiaren bigarren zatian, emakume ekintzaileen egoerari buruz hitz egin zuten: Miren Lauzirika (EmakumeEkin) eta Sonia Ortubai (Abantail) solasaldi batean elkartu ziren esperientziak partekatu eta emakumeek dituzten aukerak zein oztopoak azaltzeko. Emakume ekintzaileek saretu eta ikusgarritasuna behar dutela nabarmendu zuten.

Bukatzeko, Markel Irizar, TREK taldeko txirrindulari profesionalak eta Bizipoz proiektuko sustatzaileak, jardunaldia itxi zuen bere egitasmoaren berri emanez. Ekintzailearen ezaggarri nagusia baikortasuna dela azpimarratu zuen oñatiarrak.



**Miren LAUZIRIKA**

EmakumeEkin

«Ekintzailea naiz, eta nigan eragina daukaten hainbat faktore ez dira ene arazoa soilik, egungo ereduaren ondorioz emakumeok sufritzen ditugun arazo kolektiboa baizik».



**Markel IRIZAR**

Bizipoz

«Bizitzan une gogorak pasatzea tokatu zait (gaixotasunak, gertuko heriotzak...) baina etxean beti baikortasunez egin diegu aurre; ekintzailtzarako ere gakoa da hori»



**Nagore ARDANZA**

Creceer+ Orkestrako arduraduna

«Etorkizunerako sektorizazioan jarriko nuke arreta. Euskal Herria erabat industrialak den bezala, ekintzaile industrialak sustatzen dituzten ekimenak bultzatu beharko genituzke»



# UEMA, 80 udalerri, 240.000 biztanle

Azken asteotan beste lau udalerrik erabaki dute Mankomunitatean sartzea, baina erakundeak kezkaz ikusten du udalerrri euskaldunak gero eta erdaldunagoak direla



Festa eta aldarrikapena uztartuz ospatu zuten maiatzean Leitzañ Udalerri Euskaldunen Eguna. GARA

B.H. | DONOSTIA

**E**torkizuneko Euskal Herri euskaldun baten alde lanean ari den erakunde publikoa da Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA). Euskal Herriko puntu ezberdinetan egon eta tamaina bera ez izan arren, antzekotasun handi batek batzen ditu ekimen honetan dauden herriak: berezko hizkuntzak. UEMAko udalerrietan, biztanleen %70ek baino gehiagok daki euskaraz.

1988an Euskal Herrian Euskaraz elkartearen mozio bat onartu zuten Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako 32 udalak

euskalduntzeko eta euskara hutsean funtzionatzen hasteko. Horretarako zailtasunak eta arazo komunak zituztela ohartuta, udal haietako batzuk elkarren artean biltzen eta koordinatzen hasi ziren, udalak ere euskaraz lanean hasi ahal izateko, eta horrela, mankomunitate izaera hartuta, erakunde publiko bihurtu zen UEMA 1991. urtean, hamazazpi udalek mankomunitatea sortuta.

Gaur egun, 76 udal dira UEMAko kide. Azken asteotan, Mendaro, Errezil, Ataun eta Larrañetzuko udalak ere erabaki dute UEMA sartzea. Hauekin, 80 udalera helduko da UEMA, guztien artean 240.000 biztanle inguruko lurruna osatuz. Hego Euskal Herriko lau herrialdeeta-

ko udalak biltzen dituen mankomunitate bakarra da. Euskara nagusi den lurruna erabat euskalduntzeaz gain, lurruna euskalduna zabaltea bultzatu nahi du UEMAk.

Euskara hutsean funtziona daitekeela frogatu dute bertako udalak, baita Estatuak Urquijoren bitartez horrekiko erakusten duen jarrerari aurre eginez eta epaitegietan irabaziz ere. Hainbat helegite irabazi dituzte, eta indartuta atera dira beren bidea egiten jarraitzeko.

Baina, tamalez, gainditu beharreko oztopoak ez dira ahuntzaren gauerdiko eztula. Urriaren egindako agerraldian mezu argia zabaldu zuten: UEMAko herrietan, osasungintza publikoan, familia medikuen laurdenak ez

dira gai euskaraz aritzeko, eta ezta pediatren herenak ere. Datu horiek metodologia zorrotz bat jarraitu ostean bildu dira: UEMAko teknikariek herriz herri bildu dituzte datuak. Osakidetza eta Osasunbideko plantillak aztertu, hizkuntza eskakizunak begiratu, osasun-etxeetako arduradunekin hitz egin, euskara teknikariei galdetu, eta azkenean, herrietako euskalgintzarekin eta herritarrekin kontrastatu dute informazioa. Beraz, zalantzarako tarte gutxi.

## EUSKARAREN ARNASGUNE GUTXIAGO

1981ean %95eko biztanleria euskalduna edo gehiago zeukaten EAEko udalerrietan (27 herri Eustat-en arabera) 2.000 euskaldun baino gehiago galdu dira. Ehuneko hori betetzen zuten herriak bi besterik ez ziren 2011n. Euskararen arnasmuneek ere erdalduntze prozesu bat bizi izan dute, eta bizitzen ari dira.

Askotan aurpegiatzen diogu errua esparru pribatuari edota erakunde publikoei, eta ez dago inongo zalantzarik bizi dugun egoera linguistikoa erantzuleak seinalatzen jarraitu behar dugula. Baina badago deskuidatu behar ez dugun beste arlo bat, norbanakoarena, euskal hiztun bakoitzak bere inguruan izan dezakeen eragina. Horretarako dago, besteak beste. Euskararen telefonoa. Zenbatetan gertatzen zaigu euskaraz egin nahi eta ezina?

Horrelako kasuetan kexak bideratu eta irtenbideak aurkitzeko, UEMAk eta Hizkuntza Eskubideen Behatokiak hitzarmena sinatu dute: hizkuntza eskubideak urratu dizkizutela kexatzeko; hizkuntza eskubideei buruzko argibideak eskatzeko; baita ere, zergatik ez, jarrera eredugarriak txalotzeko.

## ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDEA

### Josu LABAKA

Lehendakaria eta Azpeitiko zinegotzia (EH Bildu)

### Onintze AMEZAGA

Lehendakariordea eta Gatikako zinegotzia (EAJ)

### Lierni ALTUNA

Aramaio alkatea (EH Bildu)

### Mikel ANSOTEGI

Aulestiko alkatea (EH Bildu)

### Aitor ELEXPURUA

Berako zinegotzia (EH Bildu)

### Amaia AZKUE

Berastegiko alkatea (EH Bildu)

### Andere ENBEITA

Muxikako zinegotzia (EH Bildu)

### Nekane IRIBAR

Zarauzko zinegotzia (EAJ)

### Manuel LABAKA

Beizamako zinegotzia (Independentea)

### Eneka MAIZ

Etxarri Aranzako alkatea (EH Bildu)

### Josetxo MENDIZABAL

Zestoako alkatea (EAJ)



B.H. | DONOSTIA

**Maren Belastegiri hartu zenion erreleboa. Ze egoerarekin egin zenuen topo?**

UEMAK hogeitau urte bete zituen an hausnarketa sakona egin zuen ordura arteko lanaz eta aurrera begirakoaz, eta ondorio batzuk nabarmenak izan ziren. Nabarmenena, udalak euskaldun arren udalerririk erdalduntzen ari direla, eta egoera iraultzea ezinbestekoa dela. Horri erantzuteko egin beharrekoa landu eta adostu zuten eta, beraz, guk lekukoa hartu genuenean, ildo estrategikoak eta UEMA egin beharreko bidea zehaztuta aurkitu genituen: udalerririk euskaldunen lurgunea zabaltzea eta sendotzea, udalak ez ezik udalerririk ere euskalduntzea, herritarren sentsibilizazioa, eta udalerririk euskaldunak zaintzea, berezko izaera galdu ez dezaten.

**EH Bilduk, EAJk eta independenteek osatutako batzorde bat zuzentzea egokitu zaizu, eta elkarlanerako deia zabaltzen duzue egindako bidea zentzuzko horretan?**

Lanerako ildoak zehazteaz gain, elkarlaneraren kulturalen ere sakondu zuten aurreko zuzendaritzak, eta horri eusten ez ezik, areagotzen ere ahaleginak gara hasieratik, bide emankorra dela sinetsita. Euskal komunitateak, alderdien arteko zeingehiagokoen mende egon gabe, subjektu gisa antolatutako erakundea da UEMA, ezinikusi ideologiko eta oztopo politikoekin gainera, batez ere euskaraz eguneroko bizimodua egitea posible izan dadin. Benetan aurrera egin nahi badugu, bai alderdien artean eta bai erakunde publikoen eta gizarte eragilearen artean, elkarri eskua luzatu eta konfiantza aritu

# «Udalerririk euskaldunak bizirik eta euskaldun izaten jarraitzeko politikak behar dira»

**JOSU LABAKA****UEMA-KO LEHENDAKARIA**

Herri mugimenduetan ibilbide luzea egin ondoren, Josu Labaka (Azpeitia, 1978) egun Azpeitiko zinegotzia da eta, iazko urriaz geroztik, UEMAko lehendakaria. Erronkak eta aurrera begirako bidea aipatzen dituen bakoitzean, «hitz hutsez harago, benetako elkarlaneraren garrantzia» nabarmentzen du.



GARA

dagoen guztia eginez. Aurrera egiteko, erabaki aurrerakoiak eta ausartak hartu behar dira, eta horretarako borondate politikoa behar da. Baina eskubide eta bizikidetzak kontua denez, gai hau borondate kontua baino gehiago da. Legea betetzeko eskatzen ari gara.

**Zein dira mankomunitatearen erronka nagusiak aurrera begira?**

Udalerririk euskaldunen lurgunea handitzea da erronketako bat, udalerririk euskaldun guztiek bat eginik, euskara nagusi izango den lurgunea osatuz. UEMA zabaltzeko lan egin beharko dugu, beraz. Udalerririk erabateko euskalduntzea da beste bat. Udalak euskaldun arren, udalerririk euskaldunak gero eta erdaldunagoak dira, eta bertako biztanle askok ez dute euskararen arnagune batean bizi diren kontzientziarik. Herritarren sentsibilizazioa eta ahalduntzea lan handia dago egiteko, eta horretan ahaleginak biderkatu beharko ditugu. Beste erakunde publikoekin ere harremanak estutu beharko ditugu, beraien eskumeneko eremuetan euskaraz aritzea bermatu diezaieten herritarrei. Azkenik, udalerririk euskaldunen zaintzari ere garrantzia handia ematen diogu, erdalduntzen jarraitu ez dezaten. Udalerririk euskaldunak bizirik eta euskaldun izaten jarraitzeko politikak martxan jartzea beharrezkoa izango da. Zentzu horretan, UEMAtik, prebentzioaren ikuspuntua txertatzea eta euskara zeharlerrotasunean lantzea dagokigu.

behar dugu, herritarren eskubideak bermatzea erakunde publikoan ardura baita.

**Zu egon zaren tartean bajak egon dira (Lesaka), baita proiektura batu diren herriak ere (Mendaro, Errezil, Ataun, Larrabetzu). Ze irakurketa egingen duzu?**

Agintaldi honetan, areagotu egin dugu udalerririk euskaldunetako hizkuntza politika lehia eta liskar politikotik babesteko ahalegina, betiere, ohi bezala, tokian tokiko errealitate politikoa errespetatuz. Errealitate horiek anitzak dira, eta ez da erraza ikamika guztiak konpontzea. Lesaka ateratzea albiste mingarria izan zen, baina agintaldi honetan Ea, Dima, Legorreta, Ziortza-Bolibar, Mendaro, Errezil, Ataun eta Larrabetzu sartu dira. Zortzi herri berri. Eta gehiago datoz bidean. Gainera, zalantzan egon

diren hainbat herri ere UEMA segitzea erabaki dute.

Azken batean, zuzendaritza batzordeak gorabeherak kudeatzen eta oreka politikoari eusten asmatu izanaren ondorioa dela esango nuke. Aurrera begira, UEMA erakunde gero eta anitzagoa eta zabalago izatea da erronka, eta horretan ari gara lanean. Ez da kasualitatea, sartu diren azken herri ia guztiek aho batez hartu izana erabakia udal osoko bilkuran, alderdi guztien aldeko botoekin.

**Alarma gorria piztu duzue. Udalerririk euskaldunenetan lau mediku eta pediatrik bat ez da gai euskaraz aritzeko. Zer egin dezake mankomunitateak honen aurrean?**

Eskubide kontua da, eta administrazioari herritarren eskubideak bermatzea dagokio. Zertarako dira bestela euskararen

aldeko kanpaina guztiak eredu izatea dagokionak eta herritarren eskubideak bermatu behar dituenak huts egiten baldin badu? Udalerririk batzuetan bereziki larria da egoera, eta hau onartezina da. Gainerako administrazio publikoekin harremanak estutzea dagokigu guri, dagokien ardurari benetan heltzea eskatzeko. Normalizazioari epea jarri behar zaio, ezinbestean, eta horren arabera egin urratsak. Osasungintzan, esaterako, kontratazio berri guztietan behintzat profesional euskaldunak kontratatzea eskatu dugu.

Behin eta berriro gogorarazi diogu Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari: zerbitzuaren kalitatea eskasa izango da beti, herritarren nahi duen hizkuntza ofiziala hautatzeko bermerik ez badu. Beraz, mediku euskaldunak bermatzeko lanean jarraituko dugu, gure esku



# LARREAKO DORRETIK LAZARRAGA SARIETARA

Arabako esparru sozioekonomikoan euskara txertatu eta hedatu duten bost entitate nabarmendu dituzte

B.H. | GASTEIZ

**A**rabako Aldundiak eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarrekin laugarren urtez jarraian banatu dituzte Lazarraga sariak, Arabako esparru sozioekonomikoan euskara txertatzeko eta hedatzeko lanean ari diren entitateak nabarmentzeko. Bi urtez behin antolatzen den ekimen honetan, Adigrafik, Txema Pascual (Artepan), Etxeko Baratza, Lautada Bizirik eta Ciudad Jardin izan dira sarituak, urtean zehar, bakoitzak bere alorrean, euskararen alde aurrera eramandako ekimenengatik. Guztira, 53 entitate eta pertsona fisiko izan dira hautagai.

Lazarraga aitzindaria izan zen euskaraz idatzitako XVI. mendean; hain zuzen, Joan Perez Lazarraga (goitizenez *Poeta*) Larrean jaio zen, Araban, 1547 inguruan. Larrea herriko Lazarraga dorreko jauna izan zen. Euskal idazlearen lanik ezagunena Lazarragaren eskuizkribua da. Bada, egun, are ezagunagoa bihurtu da Arabako Foru Aldundiak sortutako Lazarraga sariaren eskutik. Aitzindariak dira sariok, eta saritzen diren enpresa eta pertsonak ere aitzindariak dira Arabako alor sozioekonomikoan euskararen presentzia sustatzen.

Gasteizko Amarika aretoan azaroaren 24ean izan zen sari banaketan lurraldeko enpresa



Saridunei Lazarragaren eskuizkribuan oinarrituriko litografia eta eskuizkribua bera banatu zitzaizkien. GARA

eta elkarte askoren ordezkariak izan ziren, antolatzaile diren Arabako Foru Aldundikoekin eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarrekin batera.

#### LAN ISILA ALDARRIKATU

Arabako diputatu nagusiorde Pilar Garcia de Salazarren hitzetan, «ezinbestekoa da gizartea oro har eta bereziki esparru sozioekonomikoko eragileak informatzea, egunez eguneko lan isila ozen aldarrikatzeko eta hizkuntza normalizazioaren prozesuan muin eta partaide direla konturazteko».

Halaber, Rober Gutierrez Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarrekin zuzendariak nabarmendu zuen «Arabako etorkizuna euskaraz pentsatu eta eraiki» behar dela. Gainera, aurrera begirako erronka aurkeztu zuen: «Arabako euskaraz lan egitea, euskaraz ekitea, euskaraz sortzea, euskaraz berritzea, euskaraz saltzea eta erostea, egunerokoan euskaraz normaltasun osoz aritzea posible bada, gure ongizatea handiago izango da».

Sarion laugarren edizioa «Lanabes, Araban Euskara Lanean» egitasmoaren barruan koka-

tu da. Lanabes proiektuko talde eragilean, Arabako Foru Aldundia, SEA Arabako Enpresariak, Arabako Merkataritza eta Industria Ganbara, Arabako Merkataritza Federazioa, Laneki, Electra Vitoria eta Oreka It enpresak eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarrekin ari dira elkarlanean. Araban euskararen presentzia sustatu eta handitzea da helburua.

Herrialdean gero eta enpresa gehiago ari dira euskara euren eguneroko kudeaketan barnertzen, esate baterako, Bai Euskarari Ziurtagiria edo Bikain agiria duten enpresak eta euskara pla-

na dutenak. Aldaketak ari dira ematen eta, pixkanaka, euskara sustatzeak eta erabiltzeak ekar ditzakeen onurez ari dira jabetzen enpresak, saltokiak eta era guztietako entitateak. Zeresana duten enpresak eta entitate sareak ehundu nahi du ekimenak.

#### AURTENGO SARITUAK

Bost sariak banatzeko, honakoak izan dira epaimahaiak kontuan hartu dituen irizpideak. Alde batetik, zerbitzua euskaraz eman eta lan egiteko hartu diren neurriak, eta, bestetik, euskaraz lan egiteko baliabideak.



**CAFE BAR BILBAO**  
PLAZA NUEVA, 6 TFNO. (94) 415 16 71 BILBAO  
www.bilbao-cafebar.com

*Euskara,  
Euskara sar  
hadi ostatura!*

**Juan Mateo Zabala**  
euskaltegia

## MATRIKULA ZABALIK

Ikastaroak urtarriletik aurrera / Cursos a partir de Enero  
Maila guztiak · Orduzabala / Todos los niveles · Amplio horario

Gordoniz 22, BILBO · T 944 221 388  
info@juanmateozabala.eus · www.juanmateozabala.eus



Era berean, kontuan hartu dira kontratazioak, barruko dokumentazioa, hizkuntza paisaia, kanpoko komunikazioa, produktuaren kontsumitzaile eta erabiltzaileentzako elementuak, euskaraz egindako prestakuntza eta euskara prestakuntza lanean.

**Adigrafik** Amurrion dago, eta 25 urteko esperientzia duen diseinu grafiko eta web diseinuko enpresa da. Aurretik arte grafikoetan aritutako enpresa da, diseinu-estudio eta zentro grafiko gisa sendotutakoa; gaur egun, teknologia berrietara egokitu dira urrats bat harago emateko. Jende berria hartzerakoan euskaldunek lehentasuna dute, eta hizkuntza paisaia zein kanpo harremanetan euskara erabiltzea lehen lerroan jartzen dute. «Saritua izateko irizpide ugari jasotzen dituen enpresa da. Beraien jardunak erakusten duen osotasuna azpimarratu da, enpresaren egiteko guztia eta partaide guztiak kontuan hartzen dituen eredu da», epaileen arabera.

**Artepan** 1983an sortutako artisauekin eta gozotegia da. Artepanen lehengai naturalekin baino ez dute lan egiten eta zehazkiro zaintzen dituzte bai produktuen kalitatea bai egite

prozesuak, eta bistan dena, baita euskara ere. Bertan Txema Pascual da zutabea, Gasteizko euskalgintzan pertsona aski ezaguna. «Artepan enpresan euskara plana dute eta hori posiblea da bere lidergoaren bitartez». Sari honen bidez Arabako enpresetan pertsonak duten «lidergo gaitasuna» agerian jarri nahi izan du epaimahaiak.

**Etxeko Baratza** Kanpezuko Urbisu herrixkako familia enpresa txiki bat da, nekazaritza ekologikoan diharduena. Kanpo harremanetan, produktuen inguruko informazioa, hizkuntza paisaia edota tiketak euskaraz ematen dituzte, eta, barne harremanetan, berriz, euskaraz aritzen dira. Erakunde publikoekin egin beharreko harremanak euskara hutsez egiten dituzte eta parez pareko harremanetan ere euskaraz jardutera gonbidatzen dute bezeroa euren jarrerarekin.

**Lautada Bizirik** Arabako Lautadako merkataritza, ostalaritza eta gainerako zerbitzuetako lehenengo elkarte da. Euskaren presentzia bermaturik dago antolatzen dituzten jarduerak guztietan, eta Aguraingo 75 ordu euskaraz egitasmoaren barruan merkatariek beraien elkarlana eskaini zuten gogotsu

## AHALEGINA

**Euskara sustatzeagatik arlo sozioekonomikoan egindako ahalegina goraipatzea da helburua.**

## EGUNEROKOA

**Herrialdean gero eta enpresa gehiago ari dira euskara euren eguneroko kudeaketan barneratzen.**

## BOST SARITU

**Aurtengo sarituak Adigrafik, Artepan, Etxeko Baratza, Lautada Bizirik eta Ciudad Jardin izan dira.**

(280 aguraindarrek euskaraz bizitzeko nahia erakutsi eta egun horietan hala egiteko konpromisoa hartu zuten). «Zerbitzua euskaraz emateko eta euskaraz lan egiteko neurriak hartu dituzte. Kanpoko komunikazio oso aproposa da diharduten esparrua kontuan harturik. Egin duten apurrak haratago, aurrera begira duten potentziala saritu nahi izan dugu», epaimahaiaren arabera.

**Ciudad Jardin** Gasteizko Institutua gizartearen zerbitzura dagoen Lanbide Heziketako ikastetxe publikoa da, eta bosgarren sariduna. Etorkizunera begira beren prestakuntza-eskaintza inguruko enpresen beharretara eguneratu dute, eta gelak teknologia berrienarekin hornitu dituzte. Beraien jarduna Lanbide Heziketan oinarritzen

da, administrazioa, merkataritza eta informatika arloetako profesional berriak prestatuz. Ikasleek lan praktikak euskaraz egin ahal izateko ahalegin handia egiten dute. «Lan praktikak euskaraz egiteko aukera bultzatzen dute. Eskaera hori errealitate bat dela gizarteratzen ari dira eta horrek bere indarra dauka, Araban eskaintza handiena ahalbidetzen duen ikastetxea izanik», nabarmendu dute.

Lazarraga sariak Araban euskararen normalizaziorantz emandako aurrerapausoak azpimarratzeko baliatu dituzte, batez ere arlo sozioekonomikoan emandakoak. Hemendik aurrera norabidea bide horretatik doala ozen adierazi dute, elkarlanean, indarrak batuz eta egunero euskaraz bizi eta lan egitea errealitate bihurtuz.



Gizarte-ongizatea da gure izateko arrazoia. Bizkaiko Gizarte Ekintzarik garrantzitsuenak gara eta gizarte-ekintza bultzatu eta sortzea da gure konpromisoa.

bbk

atzo  
gaur  
bihar

[www.bbk.eus](http://www.bbk.eus)



En la presente campaña se han repartido unas 14.000 cajas, lo que ha posibilitado hacer una aportación de 175.000 euros al movimiento por el euskara del sur de Nafarroa

## Errigora, un sueño hecho realidad

B.H. | IRUÑEA

**L**a iniciativa popular Errigora, que une soberanía alimentaria y lingüística, ha vuelto a demostrar que gracias al auzolan se pueden hacer grandes cosas. Esta campaña ha sido más Errigora, "Errigorago": han repartido unas 14.000 cajas y han hecho una aportación de 175.000 euros al movimiento por el euskara del sur de Nafarroa. Cientos de personas voluntarias han tejido una red de distribución solidaria de más de 700 puntos a lo largo y ancho de Euskal Herria. El 23 de octubre en Arrasate y el 19 de noviembre en Ablitas decenas de voluntarios prepararon las cajas llenas de género del sur de Nafarroa, que los productores tenían a punto gracias a un duro trabajo. Hay que subrayar que cada vez son más los productores que se suman a Errigora, hoy por hoy unos veinte.

Errigora nació hace solo tres años, pero se puede afirmar que en este corto espacio de tiempo ha alcanzado la mayoría de edad. Ha posibilitado una aportación económica de 638.000 euros a distintos proyectos euskaltzales: las ikastolas de Tuter, Lodosa o Viana; AEK de la Ribera; y campañas y dinámicas a favor del derecho a estudiar en euskera.

Este año han conseguido recaudar una suma de 175.000 euros. Este dinero se utilizará para ayudar a las ikastolas anteriormente citadas, a AEK de la Ribera y su sistema de becas (ha habido un incremento del 20% en las matriculaciones), así co-



Auzolan organizado recientemente en Ablitas para preparar las cajas. GARA

mo a las dinámicas de promoción y apoyo del modelo D ("Euskaraz bizi eta ikasi", "Hamarratz", "FurgoD"...). Por si eso fuera poco, cada vez van dando más pasos en la soberanía alimentaria, y han introducido más productos de la zona en el proyecto, llegando a ofrecer dos cajas diferentes (blanca y negra).

Pero los euskaltzales que forman esta iniciativa quieren ir más allá. Quieren dotarse de iniciativas e instrumentos con los cuales puedan vivir y desa-

rollarse en euskera en el sur de Nafarroa. Trabajan con el fin de que el euskara que han adquirido mediante la enseñanza vaya ganando terreno en otros ámbitos cotidianos, tales como la cultura o el mundo laboral.

### PRÓXIMA CITA

**La próxima etapa de la iniciativa Errigora será del 1 al 15 de marzo, cuando se haga la campaña para que los euskaltzales realicen los pedidos de aceite y lotes de conserva.**

Errigora no camina sola. Además de los voluntarios y productores de la iniciativa, les han expresado su apoyo AEK, Sor-tzen, Ikastolak, Udalbiltza, EHNE, Etxalde, LAB, ELA, Gaindegia, Olatukoop, Koop 57, Behatokia, Kontseilua, diferen-

tes grupos parlamentarios y también el Gobierno de Nafarroa. Todas las organizaciones e instituciones estuvieron en la presentación del curso que hizo Errigora en el Parlamento navarro.

### LA SEMILLA HA DADO FRUTO

Alfonso Jiménez, uno de los fundadores de la Ikastola Argia de Tuter, subrayó que dejando de lado las vicisitudes del camino (que no han sido pocas) lo más importante es que de aquella semilla que plantaron han crecido tronco, ramas y hojas, y que ya da frutos: nuevas generaciones de euskaldunes en Tuter.

Es consciente de que la iniciativa Errigora es vital, y además de la aportación económica, subraya la importancia de la red de relaciones que están tejiendo.

Edorta Lezaun es miembro de CEPAN (Consejo de la Producción Agraria Ecológica de Navarra) y lo tiene bien claro: «Sin Errigora algunos de nosotros no podríamos seguir adelante».

El hastag que usa Errigora en twitter es #zuriesker, es decir, gracias a ti. Y es que la base de cualquier proyecto en auzolan es la gente; gente como Jone Lozano, que explicó como llevaron a cabo la campaña de apoyo entre «cuatro brujas» y pusieron Leitza y Areso patas arriba (apoyo de gente conocida de la zona, teatro sobre Errigora, que las empresas adquirieran cajas de la iniciativa para usarlas como aginaldo...).

La próxima etapa será del 1 al 15 de marzo, cuando se haga la campaña para que los euskaltzales realicen los pedidos de aceite y lotes de conserva. Errigora, Errigorago.

# Euskaraz gara!



B.H. | IRUÑEA

**Los organizadores de Errigora han hecho una lectura positiva de la campaña. ¿Pero hay dónde mejorar?**

Por supuesto que sí. Es cuestión de prioridades. Si lo más importante de todo es vender cestas y conseguir la mayor aportación económica posible, hay que invertir más en eso. Es decir; más voluntarios que pasen lista, más comunicación comercial, más puntos de venta, una renovación de la oferta (este año se han ofrecido dos cestas diferentes por primera vez)...

En cambio si la prioridad es dar a conocer la situación que sufren tanto la producción agrícola como el euskara en el sur de Nafarroa, los esfuerzos tienen que ser mayores a nivel comunicativo: experiencias, datos, personajes... Y todo esto acompañado por más producción en folletos, videos... y un planing concreto para medios de comunicación y redes sociales.

Y por poner un último ejemplo: si se quiere dar más impulso a la participación, poniendo en valor la labor del voluntariado, habrá que montar más de un auzolan como se ha hecho este año (Arrasate y Ablitas). En definitiva, hay mucho margen para mejorar en todo, pero ello requiere priorizar, invertir recursos y todo ello de una manera equilibrada.

**Respecto a la normalización del euskara en el sur de Nafarroa, dicen ustedes que es el momento para nuevos sueños...**

Tenemos claro que la euskaldunización de niños y adultos sigue siendo estratégica hoy por hoy. En ese sentido, en esta campaña hemos querido homenajear a todas esa generación que se

## PERU ARANBURU

### MIEMBRO DE ERRIGORA

Peru Aranburu Berriozabalgoitia (Lekeitio, 1978). Por formación académica, ingeniero técnico. Implicado desde joven en el movimiento popular, participó en la gestación de Errigora y desde entonces se ha dedicado a ello en cuerpo y alma. Para los próximos cinco años, se proponen una aportación económica de un millón de euros para el euskara o crear una comunidad de 10.000 consumidores.



GARA

# «El trabajo en auzolan fue crucial para que hoy haya euskaltegis e ikastolas»

atrevió a soñar hace unas décadas. Ese trabajo en auzolan que iniciaron fue crucial para que hoy haya euskaltegis e ikastolas en ciertos puntos del sur de Nafarroa.

Pero aparte de seguir euskaldunizando a cada vez más gente, es imprescindible ir creando nuevos espacios en los que vivir en euskara sea una realidad. ¿Por qué no empezar a soñar en ese sentido e ir creando nuevos instrumentos en esa dirección? Seguro que dentro de veinte o treinta años las nuevas generaciones nos lo agradecerán.

**Y a Errigora, como proyecto, ¿qué le depara el futuro?**

Si te digo la verdad, la velocidad en la que se crean nuevas oportu-



*«Aparte de seguir euskaldunizando a cada vez más gente, es imprescindible ir creando nuevos espacios en los que vivir en euskara sea una realidad».*

nidades es mayor que la capacidad de adecuarse a ellas. En ese sentido, estos tres años han dado para mucho y nuestro reto es priorizar y desarrollar diferentes líneas de trabajo sin perdernos en el camino. De momento, hemos realizado un amplio contraste con diferentes agentes y nos hemos atrevido a definir objetivos concretos para los próximos cinco años: aportación económica de 1.000.000 de euros para el euskara, agrupar 30 productores en torno a Errigora, crear una comunidad de 10.000 consumidores, crear una mesa para organizar nuevas hectáreas de producción, poner encima de la mesa el debate en torno a la intermediación y plantear formulas alternativas...

**Hasta ahora han sido tres campañas por año: las cajas, el aceite y los lotes de conserva.**

Aquí haremos una pequeña modificación. Este año, habrá una única campaña para hacer el pedido de aceite y conservas, y será en marzo. En cambio, el reparto y en consecuencia el pago se realizarán en abril (aceite) y en junio (lotes de conservas).

Asumimos que quizás sea más complicado hacer el pedido de conservas en marzo para luego repartirlos en junio. Pero con las enormes cantidades que se mueven en esa campaña (el año pasado fueron 161.000 productos), necesitamos más margen de maniobra para organizarlo.



B.H. | DONOSTIA

Otxandiotik Iruñerako bidea egingo du, 2017ko martxoaren 30ean hasita

# Hizkuntza eta kultura ezberdinen aniztasuna irudikatuko du Korrikak

**O**rain dela 36 urte Euskal Herria Oñatitik Bilbora zeharkatu zuen lehen

Korrika antolatu zenetik milaka egun pasa dira, eta milaka kilometro igaro arineketan. Zehazki hemeretzi Korrika igaro dira 1980an egindako lehenetik. Bada, 20. saioan, 2.000 kilometro baino gehiago izango ditugu aurretik, eta bi hots bihotz taupada bakoitzeko, bizi baikara.

Korrikaren antolaketan milaka lagun aritzen dira herriz herri eta auzoz auzo eraturako batzordeetan, eta, kanpainak irauten duen bitartean, aurkezten denetik azken eguneko jai erraldoira arte, ehunka jaialdi, kultur ekitaldi eta abar antolatuko dira, ohi bezala.

Aurtengo abiapuntua Otxandio izango da. 2017ko martxoaren 30ean hasita, hamaika egunez eta gelditu gabe, Korrikak Euskal Herria zeharkatuko du, gau eta egun. Joseba Beramendik esan bezala, «hunkigarria da pentsatzea edozein ordutan, nonbaiten, zoro zoragarri batzuk euskararen alde korrika dabiltzala».

Aurkezpena egin zuten antolatzaileek pasa den azaroan Donostiako San Telmo museoan; San Telmon bertan gordetzen da Korrikaren jatorrizko lekukoa, Remigio Mendiburuk sortutakoa. Martxoaren 30ean Otxandiotik abiatu eta apirilaren gan iritsiko da Iruñera. Merte Mugika AEKren koordinatzaile nagusiak eta Asier Amondo Korrikaren arduradunak azaldu zituzten Donostian nondik norakoak, baita bertan zeuden AEKren Artezkaritza Kontseiluko kideak ere.

«Aurreko Korrika amaitu zenetik euskaraz bizitzeko hautua irmoago dago euskal gizartean», nabarmendu zuen Mugikak. Euskararen normalizaziorako helduen espazioek ere euskaraz funtzionatzea ezinbes-



Aurkezpena Donostiako San Telmo museoan egin zen, bertan gordetzen baita Korrikaren jatorrizko lekukoa, Remigio Mendiburuk sortua. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

tekoa dela deritzo: «Horretan datza AEKren urteotako zeregin nagusia. Dena den, oraindik ere euskaltegiei zuzendutako baliabideak ez dira nahikoa», esan zuen.

Izan ere, AEKren tamaina, eta halaber beharrez, beharrak, ez dira huskeria. Egun, AEK helduen euskalduntze-alfabetatzean aritzen den elkarterik garrantzitsuena dugu eta, administratibonaketak gaindituz, Euskal Herri osoan lan egiten duen bararra. Horretarako 500 kide bai-

## BALIABIDEAK

**Euskaraz bizitzeko euskal gizartearen hautua gero eta irmoagoa bada ere, administrazioek euskaltegiei oraindik ere ez dizkietela behar dituzten baliabideak eskaintzen uste du AEK-k.**

no gehiago ari dira lanean bere lerroetan; euskara eskolak ematen dituzten 100 euskaltegi eta gau-eskola baino gehiago dituzte, normalizazio planak bideratzen laguntzeko zerbitzua eskaintzen dute, euskararen erabilera bultzatzeko programak dituzte, itzulpen zerbitzua dute, «Aizu!» aldizkaria kalera-zen dute...

### «BATZUK», ZUK ERE BAT EGITEKO

«BatZuk» izango da Korrikaren leloa, hizkuntza, kultura eta

mundu ezberdinek osatzen duten aniztasuna irudikatu nahian. Hala azaldu zuen Asier Amondok: «'Bat' eta 'zuk' hitzen arteko jolasa da, herritarak euskarara gonbidatzeko, hizkuntzen eta hiztunen berdintasunaren aldeko jaira. Hizkuntza, kultura, mundu 'bat' sendotzeko bidean, 'zuk' ere bat egin dezakezu, zeuretik, zeure hizkuntza-aberastasuna eta kultur aniztasun unibertsala bizi ditzazun: ikasiz, erabiliz, ahalbidetuz».



legutioko udala

legution euskarak

365 egun ditu!



AEK-k antolatuta, egun Korrika euskalgintza, euskal kultura eta euskararen erreferentzia bihurtu da; eta, gainera, atzerri-ere esportatzen da. Badira 37 urte Korrika jaio zela. Korrika hark Euskal Herria euskalduntzea zuen helburu eta horretan jarraitzen du oraino. Korrikaren lekukoa eskuz esku abiarazi zuten haiei egingo zaie, beraz, gorazarre, eta zor zaiena adierazi: miresmena, oroimena eta esker ona.

#### ABENDUAREN 17AN, KURSAALEN

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa abenduaren 17an aurkeztuko dute Donostia-ko Kursaal jauregian, eta prozesuan parte hartu duten eragileen artean izango dira bai AEK eta bai Korrika, hizkuntza eskubideekiko duten konpromisoa erakutsi eta Protokoloari atxikimendua adierazteko. Izan ere, AEK-k ekarpenak egin dizkio datozen urteetan lanerako tresna garrantzitsua izango den dokumentuari.

Hizkuntza berdintasunaren alde eta hizkuntza gutxituen garapena bermatzeko dokumentua da Protokoloa, gizarte eragileen proposamenekin eta Batzorde Zientifiko baten aholkuekin osatua. Herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatuak egon daitezten hartu beharreko gutxieneko neurriak jasotzen ditu. Ondorioak Europako Kultur Hiriburutzaren baitan aurkeztuko dira Kursaal jauregian.

Prozesu parte hartzaile baten bitartez, Europan, hizkuntza berdintasuna bermatzeko eta hizkuntza gutxituen garapenerako tresna eraginkorra sortzea da helburua; eta Donostian, alor horretan, mugari bat ezartzea. Bartzelonako Deklarazioa da ekimen honen oinarria. 1996ko Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala hizkuntza eskubideen defentsan gizarte zibilak egindako ekarpena izan zen. Hogei urte geroago, Donostian, urrats berria eman nahi dute orain norabide horretan.

## HOGEI EDIZIO 1980AN OÑATITIK ABIATU ZEN LEHEN KORRIKATIK

**1980.** Azaroaren 29tik abenduaren 7ra egin zen lehen Korrika, "Zuk ere esan bai euskarari" lelopean. Oñatin hasi eta Bilbon amaitu zen.

**1982.** Maiatzaren 22tik 30era egin zen, Iruñean hasi eta Donostian amaituta. Leloa "AEK, euskararen alternatiba herritarra eta Korrika" izan zen.

**1983.** "Euskaraz eta kitto". Baionatik Bilborako ibilbidea egin zen, 1983ko abenduaren 3tik 11ra.

**1985.** "Herri bat, hizkuntza bat!" izan zen leloa. Atharratzetik Iruñera egin zen, 1985eko maiatzaren 31tik ekainaren 9ra.

**1987.** Apirilaren 3tik 12ra Hendaiatik Bilbora egin zen, "Euskara, zeurea" lelopean.

**1989.** Lekukoaren barruko mezu sekretuak Iruñetik Donostiarako bidaiak egin zuen 1989ko apirilaren 14tik 23ra, "Euskara, Korrika eta kitto" eta "Euskal Herriak AEK" lelopean.

**1991.** Gasteiztik Baionara "Korrika euskara, euskaraz Euskal Herria" lelopean ospatu zen 1991ko

martxoaren 15etik 24ra.

**1993.** Martxoaren 26tik apirilaren 4ra bitarte egin zen, Iruñetik Bilbora. "Denok maite dugu gure herria euskaraz" izan zen kantua. Urte hartan Korrika Kulturala ekimena hasi zen, baita Korrika Kirolaria ere.

**1995.** Martxoaren 17tik 26ra Donibane Garazitik Gasteizera bitarte egindako Korrikan "Jalgi hadi euskaraz" lemak hartu zuen plaza.

**1997.** 1,2,3,4,5,6,7,8,9, 10! Korrikaren 10. edizioan, gainontzekoetan bezalaxe, "Euskal Herria Korrika!" jarri zen. Arantzazutik Bilborako ibilbidea egin zuen martxoaren 14tik 23ra.

**1999.** Martxoaren 19tik 28ra egin zen, Iruñetik Donostiara, "Zu eta ni euskaraz" lelopean.

**2001.** Gasteiztik Baionara egin zen, 2001eko martxoaren 29tik apirilaren 8ra, "Mundu bat euskarara bildu" lelopean.

**2003.** Mauletik Iruñera joan zen 13.

Korrika. Apirilaren 4tik 13ra, "Herri bat

geroa lantzen" lelopean.

**2005.** "Euskal Herria euskalduntzen. Ni ere bai!" lelopean Orreagatik Bilbora joan zen Korrika, martxoaren 10etik 20ra.

**2007.** Martxoaren 22tik apirilaren 1era egin zen, Karrantzatik Iruñera, "Heldu hitzari, lekukoari, elkarlanari, euskarari, herriari" lelo hartuta.

**2009.** Martxoaren 26tik apirilaren 5era, "Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira!" leloa erreleboz errelebo igaro zen Tuteratik Gasteizera.

**2011.** Apirilaren 7tik 17ra, Trebiñutik Donostiara, lelo alai batekin ospatu zen 17. Korrika: "Maitatu, ikasi, ari... Euskalakari".

**2013.** Martxoaren 14tik 24ra egin zen, "Eman euskara elkarri" lelopean, Andoaindik abiatu eta Baionan amaituta.

**2015.** Martxoaren 19tik 29ra, Urepeletik Bilbora, "Euskaldun" leloa zabaldu zen.

**2017** urteko Korrikaren abestia abenduaren 14ean aurkeztuko du antolakuntzak, "BatZuk" lelopean.



Mertxe Mugika, AEKren koordinatzaile nagusia. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

Egitasmo honek gizarte eragileetan du abiapuntua. Hori-ahaldundu nahi ditu itun sozial garrantzitsu bat adosteko, ondoren, maila guztietako erakundeek bere egin dezaten.

Protokoloa.eus atarian topatu daiteke informazio sakonagoa, tartean hizkuntza komunitateak, albisteak eta proiektua bera. Izen-ematea doakoa da eta helbide honetan egin daiteke: [www.online.protokoloa.eus/eu/kursaal](http://www.online.protokoloa.eus/eu/kursaal).

#### DURANGOKO AZOKA

Durangoko Azokan zehar, Korrikaren materiala salgai izango da Korrika Dendan, Goienkaleko 16. zenbakian, Rugby tabernaren ondoan (abenduaren 2tik 6ra, 11:00etatik 20:00etara). Jandik kamiseta berriak ere eskura daitezke web orrian, *on line* dendaren atarian, baita giltzatak ere.

Era berean, AEKren euskaltegietan ere Korrikaren materiala salgai dago, eta laster herrialde

bakoitzean egonen diren Korrika Dendak iragarriko ditu antolakuntzak. Durangoko Azokan kontuan hartu beharreko beste helbide bat AEK eta "Aizu!" aldizkariaren standa da, bertan ere izango baita zer erosi, Landako guneko Goienkaleko 76. zenbakian.

Baina txikienez zako eta bere barneko haurra bizirik mantentzen asmatu dutenez zako azoka honetako harribitxia, zalan-tzarik gabe, mahai-jolasa izango da. Lau eta sei urte bitartekoentzat da ofizialki, etxean, eskolan nahiz lagunartean jolasteko.

Bere ezaugarriak AEKrenak eta Korrikarenak dira, funtsean: jolas kooperatiboa izanen da, eta helburua ondo pasatzea, eta, bide batez, Euskal Herriari buruzko hainbat kontzeptu xume ikastea. Jokalari guztien artean 2017ko Korrikaren ibilbidea egin eta helmugara iristea da jolasaren dinamika. Ibilbidea hainbat tartetan banatuta egongo da, Korrikako kilometroen adierazle.



Euskara plana duten enpresen ahalegina saritu zuen Elhuyarrek azaroaren 17an Tabakaleran eginiko ekitaldian. ELHUYAR

## ELHUYAR, PRAKAK BETE PLAN

Hogeita bost urte bete dira enpresa batek, Elay antzuolarrak, euskara plana martxan jarri zuenetik

B.H. | DONOSTIA

**E**lhuyar Aholkularitzak duela 25 urte jarri zuen abian lehen aldiz euskara plan bat enpresa batean, eta urteurrena behar bezala ospatzeko ekitaldia egin zuten Tabakaleran, pasa den azaroaren 16an. Duela mende laurden Elay enpresa antzuolarra izan zen lehena fundazioarekin euskara plana garatzen (jarraian iritsiko ziren CAF eta Loiuko Arlan enpresa, esaterako), eta eskerrak emateko baliatu zuten aukera.

Baina zer da zehazki euskara plan bat? Euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko prozesu planifikatuak dira, eta enpresaren ezaugarri eta premietara egokitzen dira, kasuan kasu. Helburuak: erakundea euskararen gestioaz jabetzea, plana bideratzeko egitura eratzea eta hizkuntzen erabilera eta presentzia arautzea.

Elhuyarreko kideak, euskararen diagnostikoa eta diseinua egiteaz gaindi, beste alor batzuez ere arduratzen dira, hauen artean euskararen ziurtagiriak lortzeko aholkularitza (Bai Euskarari Ziurtagiria eta Bikain). Hori guztia gauzatu ahal izateko Elhuyarrek teknologia propioa garatu du. "Neurtzeko" euskara planetako helburuak eta adierazleak kudeatzeko eta

horien segimendua eta neurketak sistematizatzeke tresna da, Euskararen Marko Estandarrean (EMEn) oinarritutakoa.

Olatz Etxezarreta Fundiciones Estandako Euskara Planaren koordinatzailea da, eta Elhuyarrek gai honetan daukan balio erantsia babesten du: «Esperientzia handia daukate eta ezaguna da, alor ezberdinak dituzte. Gertutasuna, konfiantza eta erosotasuna transmititu didate eta euskararekiko gure helburuak ezagutzen lagundu».

### MUNDU ERDALDUNDUA

Enpresa mundua arras erdaldundua dago aspaldidanik, eta pare bat datu esanguratsu begiratu besterik ez dago horretaz jabetzeko. Azken 25 urteetan 400 enpresa baino gehiago izan

dira euskara plan bat aurrera eramanez, eta hori ospatzeko da; baina Euskal Herrian hamar lagunetik gorako milaka eta milaka enpresa daude, eta ehunekoei erreparatzen hasiz gero, dezimalek jo behar genuke lan hau egin duten enpresak zenbatzeko. Horregatik saritu ditu Elhuyarrek: Berriatuko Cikautxo, Gernika-Lumoko Maier, Zumaiako GKN, Bankoa, CAF Beasain-Ordizia, Zornotzako Ekin, Orona eta Euskaltel.

Manex Urruzola Elhuyarreko komunikazio arduradunak azpimarratu nahi izan du «bereziki gogotsu» aritu diren pertsonak ikusarazi nahi izan dituztela: «Enpresetan euskara bultzatzeko lan egin duten pertsonen aitortu nahi izan diegu aipamen hau, urte hauetan guztietan gogotsu egin duten lanagatik».

Baina euskara eta lan mundua ez dituzte soilik azaldutako hizkuntza planekin uztartzen. CAF-Elhuyar sariak dira horren erakusle: zientzia eta teknologiaren arloko gaiak eta ikerketak euskaraz gizarteratzeko lana aitortzea eta bultzatzea dira sariketaren helburuak. 2017ko otsailaren 17ra arte aurkeztu ahalko dira lanak. Bidelagun berria du sariketarak, Neiker (Nekazaritza, Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea). Ikerketan euskararen erabilera bultzatzeko asmoa du Neiker-ek, eta asmo hori elikatze aldera bihurtu da sariketaren babesle.

### AITORTZA

**Tabakaleran eginiko ekitaldian aitortza jaso zuten euskara planak beren enpresetan errealitate bihurtzeko lan egin duten Bankoa, CAF, GKN, Ekin, Cikautxo, Maier, Elay, Orona eta Euskalteleko protagonistek.**

B.H. | DONOSTIA

**H**asiera batean zeri-kusirik ez duten gaiak iruditzen arren, bien arteko lotura eta elkarrekintza uste duguna baino sakonagoa da. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Uemak eta Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak "ELE/Arnasguneak hedatuz" izeneko proiektuari ekin zioten 2014an.

"Lurraldea eta hizkuntza" izendatutako kongresua antolatu zuten orduan. Jakin badakigu hizkuntza baten egoeran faktore askok dutela eragina: egoera soziokulturalak daukan garrantzia aspaldi azaleratu zen, soziolinguistikaren jaiotzarekin; geografian pisua ere gehitu zion geolinguistikaren alorrak.

Azkeneko urteetan beste faktore batzuen inguruan ere hausnartu da: lurralde antolakuntzak eta hirigintzak hiztun komunitatearengan duten eraginaz. Adibidez, hazkunde urbanistikoaren eta hizkuntza aldaketaren arteko harremanaz; bereziki, euskararen arnasguneei dagokiena. Euskara nagusi den herri txiki batean berrehun etxe berri egiteak sekulako ondorioak eragin litzake.

2015ean, euskararen arnasguneak babestea ez ezik, bihotz-gune ezinbesteko horiek zabaltzea ere helburu duten ekimenei aterki juridikoa emateko oinarriak beharrezkoago zirela ikusi zuten. Aurtengo maiatzean bildu ziren hirugarrenez, lanketarekin jarraitzeko asmoz: planteamenduaren oraina eta etorkizuna irudikatu nahi zuten, esperientzia zehatzak aurkeztu, neurri zuzentzaileak hausnar-

## Hirigintza eta euskara: azalean hain urrun, sustraian hain hurbil



Euskara nagusi den herri txiki batean berrehun etxe berri egiteak sekulako ondorioak eragin litzake. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

tu, eta "ELE/Arnasguneak hedatuz" tresnaren aplikazio legal posibleak aztertu.

Hausnarketa horietan parte hartu zuenetako bat Unai Fernández de Betoño izan zen. Idatzi dituen lanetan hainbat argibide eskaintzen ditu euskararen eta hirigintzaren arteko harremanaz: «Euskal hiztunak, nomadak ez diren gizaki guztiak bezala, giza finkamenduetan -baserrietan, herrietan, hirietan- bizi dira. Ondorioz, giza finkamendu horiek baldintza-

tzen dituzten prozesu guztien eragina ere jasotzen dute hiztunek». Arestian etxebizitza berri kantitate handia eraikitzea jarri dugu adibide gisa, baina arkitekto honek beste eremu batzuk ere nabarmentzen ditu:

«Merkataritza-gune aldendu handiak, parke teknologiko eta bestelako bulego-gune isolatuak, ekipamendu publiko bakartuak... Iraunkortasunaren ikuspuntutik jasanezina izateaz gain, herritarren ahozkotasu-

### AHOZKOTASUNAREN AURKAKO EREDUA

**Merkataritza-gune aldendu handiak, bulego-gune isolatuak, ekipamendu publiko bakartuak... Iraunkortasunaren ikuspuntutik jasanezinak izateaz gain, herritarren ahozkotasunaren aurkako ereduak ere badira.**

naren aurkako ereduak ere badira». Horrelako guneak areagotu egin dira azken urteetan: IKEA Baionan eta Barakaldon, Mercadona, Corte Ingles eta halakoa... Fernandez de Betoño «porlandia» kontzeptua erabiltzen du euskal urbanizazioa definitzeko. Irakasleak ohartarazten du globalizazioaren eraginez gertatzen ari den metropolizazio prozesuari (euskal herritarren 3/4ak hiri gisa definitzen diren guneetan bizi dira) aurre egin behar diogula, euskal hiztunontzako oldar ezezagun bezain definitiboa ekar dezakeelako.

### ZALDIBARKO KASUA

Koldo Telleria arkitektura irakasleak ere parte hartzen du hausnarketa prozesu honetan, eta Zaldibarko gizartearen gainean eginiko analisi soziala jartzen du adibide: «Hizkuntza bakoitzak bizitzeko, kontsumorako eta azkenik lurraldea ulertzeko ikuspuntu propioa duela, eta baita bere baitako gizarte antolaketa propioa ere». Hiztun komunitateen gaineko azterketak irudi hau eskaintzen du Zaldibarren inguruan: «Euskara, gaztelania eta ingelesa dira Zaldibarren bereizi diren sozio ekosistemen hizkuntzak, eta horien arabera gizartearen antolaketa eta lurraldearekiko ikuspuntua begiratu dira. Horrela, euskara landa inguruan kokatu da, lurraldearekiko lotura handiarekin eta lurraren zuzeneko ustiaketarekin». Jende gutxien bizi den tokian. Egoera kezagarria, benetan.

Unai Fernandez de Betoño argi dauka nondik jo beharko litzatekeen: «Hizkuntzalaritzan lurralde ikuspegia txertatu. Lurralde antolakuntzan eta hirigintzan, hizkuntzarena. Baietz euskaldun guztiok irabazi!».



**USURBIL**  
geroa da oraina

Orain zuen birtutez  
zuen indarrez  
euskara  
itsaso urdin  
eta zabal  
bat izanen da  
eta guria da.

Munduan hainbat hizkuntza daude  
hizkuntza bat mundua da,  
hitz bakarrean mundu bat dago  
gure munduan euskara  
hitz egitean bi mundu biltzen  
dira bakar batetara  
eta euskaraz hitz bakoitzean  
mundura zabaltzen gara.



EUSKARAZ ERE,  
NATURALTASUNEZ